

Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian, bildu dira: Irigoyen, Mitxelena, Satrustegi eta Villasante euskaltzaiñak. Aresti, Berriotxoana anaia, Etxaniz, Lekuona, San Martin, Zabala, Zubikarai eta Zugasti urgazleak Arrue, Irigaray, Lekuona eta Lojendio euskaltzaiñak ezin-etorria adierazi dute.

Araudiaren eraberritzeaz mintzatzea beste baterako uztea erabaki da lagun gutxi bildu diralako.

Ondarroarrak Domingo Agirre'ren omenez Bagillaren bigarren astean prestatu dituzten jaiak aipatu ditu. Beste eskabidez erabaki da erri artan bil dedilla Euskaltzaindia batzarre agirian il orren zazpian, Maiatzeko batzarrea illero bezala egin bearran.

Bertsolari-txapelketa dala ta, lanak aurreratuxeak daudela dio Irigoyen'ek Bizkai-Nafarroetan; Gipuzkoan, berriz, zerbait erabaki bearra dagoela. Autatu diran errietako agintariei dagozten ezkabideak egin bekizkie, beraz, luzatu gabe.

Zenbait leku zeazkiro erabaki ez omen ziralako, gai ori darabilte bildu direnak. Azkenean, oexek autetsi dituzte leen-saioetarako: Andoain, Azkoitia, Beasain, Errenteria, Mondragoe eta Zarautz.

Zadorlariak aditzera ematen du datorren Uztailean egingo dala Bilbao'n "XX-VII Congreso Luso-Español para el Progreso de las Ciencias" dalakoa eta sail berezi bat izango duela bertan euskal-izkuntzak eta literaturak.

Berriotxoana anaiak, azkenik, kontuak buruz ateratzeko egiten ari dan euskal-irakaspidearen berri ematen du. Atsegiñez entzun dute guztiok aur euskaldunentzat txit probetxazkoa izango dalakoan. Artola eta Loidi urgazleak izendatu dira, Euskaltzaindiaren izenean lan ori, egin-ala, ikus dezaten.

Oi diran otoitzez asi eta bukatu da batzarrea.